

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, PORTUGALETEKO UDALAREN 2014-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuen joan den uztailaren 20an Portugaleteko Udalaren, Udal Haurtzaindegia Erakunde Autonomoaren eta DEMUPORSA eta SURPOSA sozietate publikoen kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa.

**Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du kasu guztietarako, salbuespenik gabe.

Txostenak **fiskalizazio-gai** izan den **Kontu Orokorraren finantza egoera** aztertu du eta ondorioztatu du 2014an eskuratutako **aurrezki garbi positiboak**, batik bat **diru-sarrerek gora** egin izanaren eta **gastuei eutsi** izanaren ondorioz, jasotako kapital diru-laguntzekin batera, Udalari 2013koa baino **inbertsio programa handiagoa finantzatzeko** bide eman diola, zorpetu beharrik izan gabe. **Diruzaintza Geldikinak** ere **saldo positiboa** erakutsi du.

Udalak 2014an **aurrekontuaren egonkortasun** eta **finantzaren iraunkortasun** eta **gastuaren araua** bete ditu. Gainera, Udalaren kontsolidatutako likidazioak **finantzaketa ahalmen positiboa** erakutsi du.

Udalak, erakunde autonomoak eta sozietate publikoek **zuzentasunez bete dute** 2014ko ekitaldian jarduera ekonomiko-finantzarioa arautu duen **lege araudia**, nahiz **unean uneko akatsak** azaleratu diren **langileen, administrazioko kontratazioaren eta sarrereren** ataletan; langileen atalean errelebo-kontratu bati lotutako erretiro partziala aukeratu duten sei langileri ordaindutako lizentziak eman zaizkie eta ez dago Lanpostu Zerrendarik erakunde autonomoan); administrazioko kontratazioan hornidura elektrikoa ez da publikotasun eta lehia printzipioen arabera kontratatu; eta sarreretan, kirol jardueren tarifak DEMUPORSAren administrazio-kontseiluak onartu ditu eta ez Udalbatzak.